

Xabier Letona



DANI BLANCO

Tarta eta bala

TIGREA ALA LEHOIA, zein da azkarragoa? Eta indartsuago? Zein dago urrutiago, ilargia ala eguzkia? Umetan galdetzen direnetakoak dira. Nagusitan beste galderak egiten dira: zer nahiago zenuke, tartakada bat aurpegian ala bala bat?

Carlos Salvador UPNko diputatuak txiokatutako konparaketa basati eta gupidagabea da, metafora horretan Yolanda Barcina lehendakaria hilik legokeelako. Eta, zorionez, Barcina anderea bizirik da, eta ez buruhauste gutxi sortuz gainera. Baina Salvadorrena moduko berbak ez dira hutsalak, diskurtsoa sortzen dute eta diskurtsoak giro bat... eta humus horretan ondu ondoren berbak lege bilakatzen dira. Espainia herrialde oparoa da berba-girozigor metamorfosi horretan, baina, funtsean, bere zuzenbidea zigor eta errepresioan oinarritu nahi duen edozein estaturen ezaugarria da. Estatu totalitarioen ingeniariak juridikoa.

Parot doktrina-rekin gertatutakoa baino adibide adierazgarriagorik ba ote? Biktima batzuen saminean gorrotoa erein, diskurtsoa hazi, legea muturreraino eramanez, justiziak azkenean bideratu... eta orain komeriak gorrotoa kontrolatzeko. Adibideak asko dira, esaterako ikurrinaren inguruko ekintzetan. 2010eko Sanferminetan ikurrina handi bat irekitzeagatik Txupinazoaren unean 35 eta 160 urte arteko espetxe zigorrak eskatzen dira hamahiru gazterentzat (izandako istiluetan gazte madrildar bat zauritu zen larri buruan jasotako botilakadaren ondorioz).

Eta ikusi beharko da zertan geratzen den aurtengo ikurrina jarzteagatik auziperatutako kontua. Printzipioz delitua larria da epai-learen arabera, sor zezakeen egoe-

ragatik: ikurrina jausiz gero jendez gainezka zegoen plazara, batek daki zer gerta zitekeen. 2010ean dozenaka udaltzain sartu ziren borrekin plazara, arrisku egoerarik ez zegoen jendetzaren erdira. Inportanteagoa zen ikurrina kentzea, sor zitekeen arriskua baino. Eta liskarra sortu zen, eta zauritu larri bat. Norena izan zen nagusiki zuhurtzia eza? Adibide bat. Astelehenean epaitu zituzten *tartalarien* kasua ere desmasia juridikoaren esparrukoa da. 2011n Okzitaniako Tolosan Yolanda Barcinari lau tarta botatzeagatik, bost eta bederatzi urteko espetxe zigor eskaera dute AHTren aurkako lau ekintzailak. Hau da, Galindo jeneral ohiak Lasa eta Zabala torturatu eta hiltzea agintzeagatik lau urte pasatu zituela espetxean eta Gorka Ovejerok bederatzi urte pasa ditzakeela agintari bati tarta bat botatzeagatik. Hori da neurrietako bat.

BESTE NEURRIAREN adibideak ugariak dira, kontaezinak ia. Euskal Memoria fundazioak azken hamarkadetan izandako 4.716 tortura kasu dokumentatu zituen iaz aurkeztutako txostenean. Gaur egun ez da inor espetxean Espainian torturatu izanagatik. 80ko hamarkadan izan ziren zigor txiki batzuk eta 90eko hamarkadatik aurrera ofizialki ez da torturarik existitu Espainian, beraz zigorrik ere ez. Guardia Zibilaren zuzendari izandako Luis Roldan elkarrizketatu zuen *El País*-ek iragan igandean: “Ongi, hipokritak ez bagara, batek ulertu behar du 23 lagun hil dituen gizona atxilotzen baduzu, galdekatu eta aitortzen badu, zerk eragin dio aitortza hori egitea? Kolpeak izan dira, arrastorik uzten ez duten presio fisikoak, baina pentsa dezakezuna gerta litezke-

la. Presio psikikoak ere bai. ¿Norbaitek uste du deklaratzeko dutena deklaratzeko dutela bortxarik gabe?”.

Euskal gatazkarekin zerikusirik duten kasuetan da nabarmenena Espainian, baina hortik oso harago doa. Adibidez, Iñigo Cabacas hil zuen ertzain batek pilotakada batez 2012ko udaberrian. Orain-tsu auzipetu dituzte bost ertzain eta ikusiko da zer gertatzen den. Eta PPko diru estoldak luzez gidatu zituen Luis Barcenasen kasua? Duela hamaika urte gertatu zen Prestigeren hondamendia, oraindik ez dago inor auzipetua. Zerrenda amaigabea da.

Espainiaren joera autoritarioak ez du amaierarik ordea, eta Espainiako Barne Ministerioak hilabete honetan bertan jarriko du Gobernuaren eskuetan Herriarren Segurtasunerako Legearen aldaketaren aurreproiektua. Espainiaren sinboloen aurkako delituak larritzat hartuak izango dira. Edo eskratxeak, grebetako piketeak, instituzioen aurrean egindako baimen bako bilkurak, eraikuntza ofizialak eskalatzea eta beste hainbat. Gustukoagoak edo ez izango dira desobedientzia zibilaren esparruan egiten diren ekintza ugari. Salatu daitezke, zigortu. Aurpegi bistan egindakoak ohi dira. Gorka Ovejerok emandako arrazoiekin bat etor liteke bat edo ez: “Tartakadaren helburua ez da pertsona mintzea, politikoak inguratzen dituzten zigorgabetasun idulki horretatik jaistea besterik ez da nahi” (*eldiario.es*, 2013-11-14). Baina bala eta tarta ezin dira nahastu, batez ere epaitegietan. Bi neurri daude. Bi, bi, bi, bi. Eta salatu behar da. Etengabe. ■

